



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Gobernantza Departamentua



Open
Government
Partnership



OGP
LOCAL
Euskadi



innobasque
Berriruntzearen Euskotz Agentzia
Agencia Vasca de la Innovación

KTI1 Saiioa

Akta

2023.03.20

MARAKA

Aurkibidea

- 1. Parte hartzaileak eta helburuak.*
- 2. Saiora sarrera.*
- 3. Begoña Romanen hitzaldia.*
- 4. Helburuak definitzen.*
- 5. Konpromiso Taldearen saioen plangintza eta saioaren itxiera.*

**Eranskinak.*



1. Parte-hartzailleak eta helburuak.

Bilera: Konpromiso Taldearen lehenengo saioa OGP III. Konpromisoaren Etika Publikoari buruzko zikloan.

Data: 2023.03.20


Helburuak:

Lehenengo saioaren helburu nagusiak hurrengoak izan dira:

- **Parte-hartzailleak testuinguruan jarri**, orainarte egin den lana ezagutzera emanaz.
 - OGP III. Konpromisoaren ziklo berri bat hasi dela jakinarazi, Etika Publikoan zentratuko dena.
 - Begoña Romanen hitzaldia entzun, Etika Publikoa gaiaren inguruan aditua, proiektua testuinguratzeko.
 - Etika Publikoa gaiaren inguruan hausnartu Begoña Romanekin batera.
- **Proiektuaren helburuak definitu.**
- **Proiekturako planteatutako prozesua aurkeztu eta kontrastatu.**
- Hurrengo Konpromiso Taldearen **saioen data eta ezaugarriak zehaztu.**

1. Parte-hartzaileak eta helburuak.

Parte-hartzaileak:



2. Saiora sarrera.

- Ongi etorria eta hasierako kafea.
- Ondoren, **prozesu berriari hasiera emateko sarrera txiki bat egin da eta saioan zer egingo den azaldu** zaie parte-hartzaileei.
- Ondorioztatu daiteke parte-hartzaileek **jarrera positiboa** izan dutela proiektuarekiko saioa hasi aurretik.

3. Begoña Romanen hitzaldia.

- Etika Publikoaren gaiari sarrera emateko, Begoña Romanen hitzaldia eraman da aurrera. Berriz entzuteko interesa izanez gero, klikatu hurrengo esteka: https://youtu.be/_LbDvWpF3m0
- Hitzaldiaren ondoren, partaideek galderak egin eta hausnarketak partekatu dituzte. Bideoaren barne hartuta daude hausnarketa hauek ere.



4. Helburuak definitzen.

- Talde txikitan banatu gara, 4-5 pertsonako 3 talde sortuz.
- Talde bakoitzak dinamikarako berariaz prestatutako plantilla izan du lanerako oinarri.
- Dinamikak bi zati izan ditu:
- **1. Orainarte izandako helburuaren analisia.** Prozesuaren helburua definitzen duen esaldiaren analisia burutu behar izan dute, esaldia hurrengoa izanik:

“Zuzentasun sistema eta/edo Kode Etikoa era partekatuan eta hortaz, jabetza partekatuarekin, sortu, berdefinitu edo barneratzeko metodologia eta prozesuen inguruan hausnartu, hauetatik ikasi eta erakunde desberdinentzako erabilgarria izango den eredu sortzea, herritarrengan nola eragingo duen kontuan hartuz.”

- **2. Helburuak eta kontuan izan beharreko aspektuak definitzen.** Orainarte izandako helburua eta saioan zehar izandako hausnarketak kontuan izanik, prozesuaren helburu ezberdinak definitu behar izan dira.
- Talde txikietan lan egin ondoren, talde bakoitzak egindako lana elkarbanatu du, identifikatutako helburuak eta hauek definitzerakoan sortu diren galderak kontuan izanik.
**Talde bakoitzean egindako lana aktaren amaieran atxikitzen da.*
- Definitutako helburu komunak eta lana elkarbanatzean sortutako eztabida hurrengo orrian batu da.



4. Helburuak definitzen.

- **Definitutako helburu komunak:**
- **Metodologia edo prozesu** bat izan behar da, erakundearen barne etika lantzen lagunduko duen eredu bat.
- **Eskalablea izan behar da:** lurralde eta administrazio mota ezberdinetarako baliagarria izan behar da.
- Nola egin komunitarioa edo **nola landu etika publikoa eragile ezberdinekin** jaso behar du.
- Metodologia edo prozesua **propositiboa izan behar da**, erakundeek onura komuna bilatzea bultzatzen duena.
- Beharrezkoa da Kode Etikoa erakundeetako langileek barneratzea.
- **Helburuak definitzerakoan sortu diren galderak:**
- Zein erakunde motarentzako izango da? Administrazioa soilik? Fundazioak? Erakundeak?
- Zein izan behar da OGPren rola? “Komite etikoaren sarea” sortu eta hau lideratu?
- Nola sortu behar da “Komite etikoa”ren sare hori?
- Zein galderari erantzuten lagundu behar dio prozesu edo metodologiak?
- **Eztabaidan landutako gaiak:**
- **Dauden Kode Etikoa aztertzeke prozesu bat sortuko da, edo erakundeetan etika publikoa nola barneratu daitekeen landuko da?**
- Diagnostiko bat egitea garrantzitsua dela esan da, baina ez da prozesuaren helburu printzipala.
- Helburu posibleetako bat, Euskadiko administrazioen eta OGPren arteko lankidetzaren daiteke, etika publikoari buruz sortzen diren galderari erantzuteko.
- Etika publikoa birplanteatu daitekeela uste da, baina orainarte landutakoa kontuan izanda.
- Hainbat partaidek etika publikoa “zerotik planteatu behar dela” uste dute.

4. Helburuak definitzen.

- Kode Etiko bat ezin bada errepikatu, administrazio askok ez daukate politika etikoak modu parte-hartzailean birplanteatzeko nahikoa azpiegitura.
- Prozesuan zehar administrazio txikientzako lan egitea klabea dela esan da, azpiegitura nahikoa ez izan arren, politika etikoak modu parte-hartzailean birplanteatzeko laguntza emateko.
- “*Interesgarriagoa da baliabiderik ez dutenei baliozko alternatibak ematea*”.
- Hala ere, administrazio txikientzako planteatutako prozesua baliogarria izan behar da azpiegitura handiko erakundeentzat ere.
- Gaur egungo egoeraren diagnostikoa egiten lagundu ahal du sortutako prozesuak.
- “Kode Etiko bat sortuta daukat, baina zer gehiago behar dut?”

- Existitzen diren tresna ezberdinen arteko kohesioa bermatu behar da.
- Interesgarria izan daiteke printzipio batzuk sortzea, diagnostikoa egiterakoan jarraitu ahal izateko.
- Begoña Romanekin hitz egitea erabaki da prozesurako dauden baliabideak kontuan izanda, zer lortu ahal dugun erabakitzeko.



5. Konpromiso Taldearen Saioen plangintza eta saioren itxiera

- Konpromiso Taldearen saioren daten proposamenak aurkeztu eta kontrastatu dira, hurrengoak izanik:

- ~~KT1: Martxoak 20~~ ~~Marzo~~ -- *Gipuzkoako Foru Aldundia*
- ~~KT2: Maiatzak 9~~ ~~Mayo~~ - *Vitoria-Gasteiz*
- ~~KT3: Irailak 19~~ ~~Septiembre~~ - *Innobasque*
- ~~KT4: Azaroak 7~~ ~~Noviembre~~ - *Gipuzkoako Foru Aldundia*

- Itxieran hurrengo pausoen errepassoa egin da.





Eskerrik asko!

3. Konpromisoaren idazkaritza teknikoa:

MARAKA

www.maraka.co

garazi@maraka.co

*Eranskinak.

- 1. TALDEA: Itsaso Olaizola, Izaro Alkorta, Haritz Ugarte, Elixabete Arrieta, Maialen Olabe

Helburuak eta kontuan eduki beharreko aspektuak definitzen Definiendo objetivos y aspectos a tener en cuenta:

- *Modu partekatuan egingo den EREDUA sortu?*
Aurretiazko pausuak hausnartu eta definitu xedea burutzeko.
 - *Galdera: Zein erakunde motarentzako izango da?*
Administrazioa soilik? Fundazioak? Erakundeak?
 - *Galdera: Zein izan behar da OGPren rola? “Komite etikoaren sarea”-ren lidergoa?*
- *Eskalabiltatea: Erreferentzia bat izan behar da, malgua eta dinamikoa.*
- *Erakundearen Argumentarioa (etika zergatiak) barrutik definitzeko prozesua aztertu.*
- *Egiten den eredia zerbait egin nahi duen erakundeari baliogarria izan behar zaio, hau da, mota askotako erakunderentzat baliotsua izan behar da.*

*Eranskinak.

- 2. TALDEA: Garbiñe Aramendi, Goizalde Atxutegi, Nerea Zubia, Maria Presa, Garikoitz Lekuona.

Helburuak eta kontuan eduki beharreko aspektuak definitzen Definiendo objetivos y aspectos a tener en cuenta:

- Metodologia eredu bat sortu, ez kode bat.
- Berrikusi eta Otik hasten direnen lanketak aurreikusitako beharko lituzte metodologiak.
- Nola egin komunitarioa eta nola landu eragileekin erakundeetako etika: Metodologian jaso.
- Eredua sortu: Nola egin Kode Etikoaren lanketa, zer izan behar da kontuan. Fokoa prozesuan jarri.
- Lurralde eskala ezberdinak kontuan izatea lanketan.
- Nola landu etika publikoa: Osagaiak eta bideo bat? Erantzun beharreko galderak osagai edo bideoarekin:
- Nola aplikatzen dut arazo bat dagoenean? (Erreaktiboko praktikoa)
- Gutxieneko/ minimo batzuk landu, eredia hezurdura bat izan daiteke, gero erakunde bakoitzak gehitzeko behar/ nahi duena.
- Konfliktua? Abiapuntua izan behar du... beti dago konfliktua ala ez?
- Galdera: **Bidea berdina da helburua kode etikoa egitea izan edo sortzen diren galdera etikoei erantzutea izatea?**

*Eranskinak.

- 3. TALDEA: Elsa Fuente, Itziar Calvo, Amagoia Ibarondo, Mikel Pagola

Helburuak eta kontuan eduki beharreko aspektuak definitzen Definiendo objetivos y aspectos a tener en cuenta:

- *Jardunbide on eta txarren hasierako diagnostikoa.*
- *Fokoa Euskadin edo estatu-mailan jarriko dugu?*
- *Helburua elementu propositiboetan zentratu: guztien onura bilatu.*
- *Lana behar bezala egin dela bermatzeko adierazleak definitu.*
- *Nola dago sortua Komite Etikoa?*
- *Kode Etikoa erakundeetatik zabaldu.*